2/...GAIXOEN GANTZU-IGURTZIA EMATEKOAN: «OTOITZA. Goiko Jauna, Zuk esan duzu Santiago Apostoluaren bidez: ¿GAIXO AL DAUKAZUTE BATEN BAT? DEITU DETZALA ELIZAKO APEZAK: OTOITZ EGINO DUTE AREN ALDE OLIO SANTUZ UA GANTZUTURIK, ETA SINESTUZ EGINDAKO OTOITZ ONEK, GAIXOA SENDATUKO DU; JAINKOAK ARINDUKO DU, TA PEKATUAN BA'DAGO, BARKATUKO ZAIO. Beraz, gure Salbatzaile, senda ezazu, arren, Espiritu Santuaren graziaz, gaixo onen gaitza; senda onen zauriak, eta barka obenak, aiena iozkazu gorputz animako gaitzak oro, ta Zure errukiz, emaiou gorputz animan osasun betea, Zure ontasunez bizkorturik, bere lanbidera biurtu dedilla. Errege bizi baitzera Aitarekin eta Espiritu Santuarekin. Amen».

3/...BARKAMEN OSOA EMATEKOAN: «OTOITZA. Jaungoiko onbera, errukien Aita, poz guzian Jainkoa. Zu sinesten eta itxaroten zaitutenik inor galtzea ez baituzu nai; Zure erruki aundiz begira iozu samur Zure morroi (neskame) N'ri, Zuri baitzaizu goraintzi kristau sinestez eta itxaropidez. Mundura bialdu zenun Salbatzaileagatik, ondora zakio anima oni; Jesukristo Zure Seme bakarraren Pasio eriotzen irabaziengatik, emaiouzu pekatu guzian barkamen osoa; emendik aldegiten dunean, Zu auzijaun onbera arki zaitzala, ta Zure Seme Salbatzailearen odoletan zikin guzik garbiturik, bizi ontatik igaro dedilla beñiere bukatuko ez dan artara. Ala bedi».

—Oik denak, beorrek esan dituenak eta Eliz Ama Santak ematen dizkiunak, gauze onak dee, baño ¿elitzeko obe denak beti prest eotea, au da, Jainkoan grazian, eta eriotza etorri dedilla naiz egunez, naiz gabez.

—¡Obe, obe...! Denak pekatariak geran ezker, ez da aini erraxa zuk diozuna. Begira ze gertatu zaion apez jaun bateri. Arrek, ere, esaten omen zuen, obispo jaunak etzuela gaitzatu bear noiz etorri bear zuen parrokiak bisitazera. ¡Orduan ikusiko zen zeñi apez zen txukun edo zabar!— esaten omen zuen.

—«Zuk, ere, zerbait izango zifun bear ez den bezala»— erantzuten zioten bere lagunak. Beti ola, ez ta bai zirela, ara non etortzen den Obispo jauna. Deitu zun apezai eta asi ziren elizeko gauza guztiak ikusten. Aurretik zoaien Obispoan Bikario jauna. Eliz guztia txukun baño txukunago emen zegon: aldareko maindirak txuri ta leun, argizariak txuxen, eta dena ola. Obispoak eta Bikarioak, burua mugitzen zuten: «Ongi, ongi», esanez. Ontakoan, Bikario jauna, konfesionario baten barnera begitzean, atzeratzen da arriturik. Deitzen du Obispoai ta, au ere, ¡kusten duena ezin sinistuz gelditzen da! Ala ere, etzioten apezai deus esan. ¿Ze ikusi izango zuten? zion onek. Obispo jauna ta bere Bikarioa, autoa artuta aldendu ziren eskero, juan omen zen gure apeza lasterka, konfessio lekuan zer ote zeon ekustera eta, ¿ze uste dezu ikusi zuela? ¡Bi kañoneko eskopeta bat! Egun on batez, an utzi baizun, bela artzeko asmoan, eta igeru aztu...!

¡Ongi jarrita dire, bada, ELIZEKOAK, Jainkoan aurrea txukun eta garbi agertu gaitzen!

¡Ta ELIZEKOAK, garaian artu bear dire, ez gaixoa «azkenekotan» dagoanin!

A. ASTIZ ARREGI



LESAKA

JAI AK

Uno de enero; dos de febrero; tres de marzo; cuatro de abril; cinco de mayo; seis de junio; SIETE DE JULIO, SAN FERMIN.

Bai, adiskide: Uztailla'ren 7'an, San Fermin. Jaiak. Jaiak Yruñean. Ta, baita, jaiak Lesaka'n.

Uztailla'ren 6'a: eguardia. Entzun dira amabi ezkillak. Seskain edo altsaferoa igo da. Asi dira jaiak! San Fermin jaiak Lesaka'n.

Atzean, urteko neke ta eznaikeri guztiak. Aintziñean, lau egun. Lau egun pozez beteak.

Ezdago aserrikerik. Ez negarrerik. Gorrotuentzako lekuri, ezta!

Gazteak, Yruñeantantz jantziak, elkarte ederrean, zer edo zer antolatatu naiez.

GORA SAN FERMIN!: Au da au, eio sorgiñ-garria. Egun bakan baño berexien giltza. Urtean bein eskuratzin degun garaian asiera.

Bañan... Bañan goxotasun egunak, sei ordukoak omen dira.

Joan ta etorri dabilz urteak. Alaxe gure amets zoroak. Onela ba, il dira gure egunak. Joan dira, bai, San Fermin jaiak. Joan dira; baño eldu den urte ortan berriro jaiotzeko. Agur ta... GORA SAN FERMIN!!

BIDASOA'KO TXAPELKETA

Berriro Lesaka'ko «Peña Vergara»k badauka esku-bide osoa bere buru ta galdurrara gora altsatuzeko. Aren bidez ikusten bai degu berpiztua, aspalditso illa zegon «BIDASOA'KO PILLOTARIEN TXAPELKETA».



Lendariztik, «Peña Vergara»ren antolatuzeko asmoa zabaldu-diñ laster, lurralde ontako erriak beatza erakutsi zuten, sariketa ontan esku-artu naiez. Ona emen erri ok:

ONDARRABI, YRUN, DONEZTEBE, SUMBILLA, ETXALAR, YANCI ta LESAKA.

Jorrailla'n asiera emana, bigarren itzul-aldian arkitzen ditugu. Orain arte zentzutasun berexia. Azken ontan naiko aul.

Ala ere, zorion ta txalo beroak «PEÑA VERGARA»ri.

ANTOIN



Tiburzio Almenar txistularia-Atabaldaria, edo tanborrari, Joakin Santxotena

Garagarilleko «PRINCIPE DE VIANA» mintzo da Arizkun'go eta Baztan'go Txistulari guziz aipagarri den Elizalde'tar Mauriziooz. Gizon au aipetuz erratan den guzie, guti izanen da, bere balioa itz ederrenak eta goxoenak baño aundiagokoa bada: berari esker irauten dute mutil-dantzak, jota eta parrusaldak; eus-

Baztan'go txistulariek

kaldun besta bat egiten delarik, Maurizio nai-ta-naiezkoa... Errietako besteetan, Meza berrietan, eztaietan... Maurizio an: bere sasoiñakin, bere albidade miragarriekin...

Baño zorionez, an erratan diren guziek, egie ez dire: An errana dago: «Amalau erri ditu Baztanek, amalau errietan txistulari bakarra Maurizio dabil batean ta bertzean». Zorionez Baztanen oraindik ba dire bertze txistulari batzuek: ez dire naski Mauriziooren parekoak; olakoak noizian beinke sortzen bai-dire; baño berei eskerrak txistue ez da akitzen Mauriziookin. Bere semeak ere poliki aski asi ziren...

Zenbait aipetu nai ditut; ba-daiteke bertze zenbait geiago an ta emen izetia: esker litzeke...

Lenbizikorik arkitzen dugu Irurita'ko Tiburzio Almenar; lan ederra zifnez txistulari unek egin duena: aunitz urtez, igendero Irurita'ko plazan txistue yo izen du; eta erriko Dantzariek daramazkiten amasei urteetan, dantzarien buru eta soñularie, bera izen da: zenbat Nafarroko, bai ta Frantziko euskal errietan entzun izen da Tiburzio yotako txistue... Bera da bai ta ere Lekaroz'ko Kolejioko txistularie, an egiten diren ainbertze besteetan, azkeneko

oge ta bortz urteetan. Mauriziooren gogoa eta sasoiñ aundie ba-da, ez da tikiagokoa Tiburziorena. Aunitz urtez iraun dezala; noiz-bait nobaritu toke dute iruritaraz bere utsa...

Aipetu bearrak dire bai ta, arizkudar batzuek: Xabier Larralde, txistulari gaztea; eta Santiago Errotaberea, naiko merituko gizona, txistue eskuñekin yotzen duena Arraioz'ko eta Amayur'ko besteetan. Gogoan dauket bertze txistulari on bat: José M.^a Sagastibelza, lekaroz-tarra berez, Elizondon ainbertze urtez yo izen duena, orai yotzen ez ba du ere.

Segur naiz nor edo nor utzi izanen dutela, Aipetu ditutenekin aski de, errateko Maurizio ez dela Baztan'go txistulari bakarra.

Ala ere txistularien falta aundie da. Baño ez da ori makurrena. Zorixarrez, Baztanen jota dantzariek falta ditugu. Gure gazteak ez dute nekatu nai: errietako bestetan mirakulua da jota bat entzuta zenbait errietan beinpin; eta orduen ero, naiago «Orkestak» yotzen duena, txistuz yoa baño... Auxe da egi negargarrie: Jota dantzariek balireke, txistu soñue yendeak maite balu, txistulariek ere sortuko lireke.

I.



Aralar'ko aizeak

Aralar'ko San Migel Aingeruaren eliza Naparro'an den elizik zarrena omen da. Ta España'n diren zarrenetakoa, Iniguez jaun arkitekto ospetsuak dionez.

Bedratzi garren mendean eraikitzen asia omen da bisigotiko eran edo estiluan, zimenduak eta auen aldemenak beintzapein.

San Migel'ko eliza ezagutzen dutenek eztiote olako zarkerarik artzen-lkusi batean berriki jasotako eliza bat nabari du, ain txukun eta garbi agertzen bai zaizkigu bere orma edo paretta guziak. Auek geienean porlaneez estaliak daude; ta agirian dauden arriak ere, birlanduak izandu ziran duela berrogei ta bospat urte, zartankera kendu ta berri itxura emateko.

Orain berriz gauza zar guziak modan daude, ta arri zarrak agirian jarzea bere gogoko du jendeak. Arriya bezelakorik ezpaita deus, izan ere, begien atsegingarri!

Ba, Naparroa'ko Diputazioak, «Príncipe de Viana» delakoaren bitartez, San Migel'ko elizari bere zarkerua ta itxura itzuli nai ditio, ta lanbide ortan asiak dira, jo ta ke, zenbait langille trebe.

Lengo zurezko aldare nagusi, koru, kulpittu ta gañerako txingoteak kendu ta esmalteko erretablo miragarria jarriko dute aldare buru, begi guzian atsegingarri.

Lanbide ederra ta baliosa gure Diputazioak San Migel'ko elizan esku-tartean darabilena.

Naiko lan izanen dute gauzak bear bezela burutzen; baño bein lan guziak bukatu ezkeroz, a zer edertasuna goi artan ikusiko duguna!

«ARTXUETA'KO UNAIA»

ERRIZ - ERRI.

ETXELAR

Biragurutze baten ondoren, zugaitez inguratuko bide estu bat, ixiltasun agurgarria zatikatu gabe, zerbait esan naizik dabillen errekatso garbi baten eskuin aldean.

Euki nuen, beingo batean, Etxalar ezagutzeko astia. Igande egun batez. Udazkeneko igande illun batez. Etxalar artalde bat iduritu zaiten, eldu zan euri-jasaz gerizpetu naiez. Mendi artean giltzapetua, etxeen zunitasuna aurkan zegon goieko goibel beltz aiekin.

Etxalar, napar erri, edertasunez betea. Bidaso'ko Bortz Erri aietatik bat.

Bi milla bizi dira euskal txoko artan. Bai; bi milla euskaldun azkar nekazaritik eguneroko jan-bearra ateratzen dutenak. Yzerdien bidez, semeen etorkizun zalla.

Etxalar, munduko latzkeritik baztertuta, ixiltasun ta pakea erria egiña dirudi. Bere bidea jarraitzen du, iñorreri kalte egin gabe.

Frantzia'ko mugatik urbill arkitzen da, benetan, erri au. Orren-gaño ta, napar guztien artean ezagun dan «Usategieta», (Palomeras), bitartez, urteko garai berexi batzuetan, Etxalar'ko ostatuak muiñetaraño beateak ikusten ditugu; bere, sarien-antz nastuko kaleetan naiko ozte edo gende arrotz. Ala ere esan bear genuke, miñ egiteko asmoak bazterturik, etxelartarrak jarraitzen dutela gibelasunen mall batean, inguru ontako erri geienen antz.

IGANDE EGUNEZ

Meza ondoren, eizira ez ateri ez-



kero, betiko ardo-urru edo txiki-tuak ta pillota joku baten bat erritar aien artean: ona emen igandero-ko egin-bear guztiak Etxalar'en.

Arratsaldean, etxelartar gaztedia, erria utzirik, beste zoko alai ta nagarrigo baten billa ateratzen dira. Yllunabarrean, dana uts... ta zenbat nekegarri ezda, alako erri polita batean, kaleen bakartasunaren ikusle izatea! Ezdago zine'rik; ezta soñu edo musika'rik ere. Ezdago ezer jai arratsaldetan Etxalarren.

Motellak: noiz arte onela, lo? Etxalar erriak aspeditso irabazi zuen au baño geiago... askoz geiago. Gaztediak zer edo zer antolatu bear dute. «Gaztediak» esan det, bai, aiek badaukate, ba, edo biar luteke erria berpiztuzeko sukarra. Danen naiez zerbait egin litzake...

ke..., egin bear litzake. Esatea: ze arras! Egitea: orra or kokka! Egia: mingaiekin esatea, ze arras! Egitean: gauz bear-bearrezko otan ez litzake kokkerik bear, baizik!

ETXALAR TA EUSKERA:

Etxalar berriztuzten ari dire. Bakoitzak bere etxea baserri-antz ipiñitzen. Euskera bere etsaietatik gordezten dan napar erria: ala da Etxalar.


Etxalartarrak zaituzten dute euskera, eguneroko izketan erabilliz, arreta osoaz. Ta, Etxalar guztia arro dago gauz onen gain.

Ze ikasbide ederra! Gu, euskaldunak uste gera, ta erderaz izketan. Au lotsa!!

Anton ERKIZIA



LEITZA



LEITZAKO NEKAZARI IKASTOLA

Urte bat geiago; bigarrena aurtengoa Leitzako NEKAZARI IKASTOLAREN.

Berrogei ta bost mutil baserritar izan dira aurten, beren nekazari ikasketak egiten Leitzan jardun diranak, Naparroko Ipar-aldeak dituan alderdi geienetatik etorriak.

Nekazariarentzat laguntza gutxi dagola. Degu sarritan, eta egia da izan ere, etzaio oraindik beintzat bere premiak diran neurriko laguntzarik eskeñi, eta ematen zaion laguntza asko, ezdira berari onik aundiena ekarriko dion erakoak.

Esan bearrik ezdago edozein alderdiri ematen zaion laguntzak, ezduala izan bear une bateko estu-alditik aterako duana bakarrik; baizik aurrera begira, urtetik urtera eten-gabeko aurrerapen bidean jarriko duana.

Buru-gabeak izango giñake, silo edo belar zulo bat egin degulako, belar berrikiñ lur zati batzuek estali ditugulako, edo ganaduentzako azpiak parillaz jartzearekiñ, gure etorkizuneko ateari iriki ditugula usteko bagendu. Auek danak une bateko estu-alditik ateratzera besterik ez digutelako egingo.

Gure giza-bizitza egokitu eta egiten degun lana diru emangarri izango bada, aldaketa sakonak bear-ditugu, bañan auek izango badira, gure nekazari errietan lan egingo duten gazteak —biarko gizonak— bear bezela eskolatzea da lanik premizkoena.

Ezdago egizko aurrerapenik gure nekazariak gizaartearen gutxienean eskolatutako jende malla osatzen duten bitartean. Garbi dago mundu ontako lurralde aurreratuenak, gizonak eskolatzen dirutza izugarriak erabili dituztelako iritxi dirala dauden mallara, eta beste guztiok ere egizko aurrerapenik nai badegu ezdaukagu beste biderik.

Au guztia orrela izanik ezdago dudarik nekazariak ere eskolatzea bear bearrezko zaigula, eta ori da iritxi nai deguna Leitzako NEKAZARI IKASTOLA onen bitartez.

Bildur gabe esan dezakegu emen daukala nekazariak, gaur bear-duan egiazko laguntza-tako bat jeta ez nola naiko laguntza! bertan jan, bertan lo egiñ, erakutsi franko eman eta illabete bakoitzeko amar duro besterik ezdute ordaindu bearrik izan.

Beragaitik, nekazaritzan beren bizimodua ateratzeko asmoan semeak dituztenak, ezluteke utzi bear iñork ikastola ontara bialdu gabe. Datorren Azaroan lenengotik asiko dira berriro eskolak, eldu-dan urteko Lorailaren bukatzeko, amalau urtetik emezortzi-ra bitartekoak etorri ditezke. Denbora juanda damurik izan ezdezazuten, saiatu bada garaia dan arte.

AITZGORRI



BAZTAN

LENENGO JAUN-ARTZEAK ORONOTZ'EN

Maiatzaren ogei ta irugarrenean, Igokunde egunez, egin zuten lenengo Jaun-artzea amabost aurtxoek, bederatzi nexka ta sei muttikok, alegia. Ona, emen, beren izenak:

Maria Jesus Arregi Almandoz, Maria Karmen Torroba Sanzberro, Maria Kristina Ugarte Gortari, Maria Rokamador Balda Jauregi, Maria Koro Gartzia Maia, Maria Rosario Martinez de Lizarrondo Galañena, Juana Mari Berho Iriarte, Maria Krutz Apezetxea, Maria Jesus Krespo; Kiriko Oteiza Ugarte, Jesus Maria Intziarte Irureta, Karmelo Maria Berho Apezetxea, Bernardo Ugarte Gortari, Josetxo Etxandi eta Jose Antonio Santxez.

Sakramentu guztiak (izenbat dira? dotriñaren Lenengo Zatikogaldera) santu ta aundiak dira, bañan... guratso guztientzat, «bat» bada aundia: komunioa. Aurren lenengo Jaun-artzea, alegia.

Zenbat buru-auste ekartzen ote dizkie guratsoeri aurren LENENGO JAUN-ARTZE orrek! Kezka aundiak sortzen zaizkie nai ta naiez ikasbidea (dotriña) nola ikasiko ote duten; aski prestatuko ote diran Komuniorako; buru gogorra omen duela bere umetxoak; apaizak ere «piper» egiten omen duela dotriña erakuste orren gañean... Aldameneko familli orren nexka baño gurea obekixago, edertxago eraman bear orrek; orrenbeste famillitar itxo (espero) ditudan ezkerro, bazkaria ere eder-xamarra prestatu bearrak... Ta, orrelaxe guratso guziekin ta urte guziz.

Aipatutako «kezka» oiek denak, daramate beren arrazoi puxka. Ez da ulertu (entenditu) eziña AMA batek kezka ta ilusioak izatea. Denok daramakigu geren arrokeria, aulak ta erorkorrak geranez. «Geiegi-keriari etziola tokirik eman bear» oroituarazten digute, bañan, ni segur nago iñor ez dala izango elizmaixu oien erakutsiak «utsean» botako dituztenik. Ez. Alakoxeko eder-zaletasun bat besterik ez da izaten. Gauzak egoki ta ongi atera naia. Jainkoak barka deigula oben txiki ori!

Zorionak aurtxo oieri ta bai ta ere beren guratsoeri.

GORTARI TA UGARTE'TAR YON

DONEZTEBE'TIK

En el número 27 del Suplemento de la revista «PRINCIPE DE VIANA», correspondiente al mes de mayo último, he leído una crónica de Santesteban, firmada por «G. TA U. YON», en la que sin concretar, pero pluralizando y sin excluir a nadie, vierte inexactitudes y acusaciones contra los Ayuntamientos de «Maldarrek», de los que dice:

«No quiero que aparezcan sus nombres aquí (en el periódico) no porque no se merecen, pero algún día caerá sobre ellos la cuenta de la justicia. Pues nunca vale aparecer como cordero si deja el mordisco de lobo». Y termina diciendo: «EN UNA PALABRA: EL VASCUENCE ESTA ODIADO».

Como quiera que siendo concejal del Ayuntamiento de Santesteban, me tocan de cerca las acusaciones, y, aunque sea suspicacia, creo que van dirigidas contra él principalmente, salgo en nuestra defensa.

En primer lugar, creo que estoy mejor informado que el destemplado cronista, y, en cuanto a mí personalmente se refiere, puedo decirle que, aparte de que he procurado hacer por nuestra lengua vernácula algo más que lamentarme y acusar con inexactitudes —porque es inexacto que al vascuence se le odie por nadie que sea de esta tierra— salgo al paso del cronista y conmigo el resto del Ayuntamiento, para desmentir lo que afirma.

No Sr. Gortari. No somos vascófobos; sino como buenos navarros, muy vascófilos y amantes de nuestras buenas costumbres y tradiciones, por las que siempre hemos puesto y seguimos poniendo nuestro granito de arena.

Desgraciadamente, por lo que personalmente me toca, me sobran años ya y me falta tiempo para todo lo que quisiera de estos y parecidos menesteres, con obligación o sin ella, que nunca la he eludido ni dejado de lado, aun cuando parece que todas son para unos pocos.

Hay jóvenes y mayores en plenitud de facultades que disponen de tiempo hasta para quejarse y culpar al que sea de que no se hace y esperan que todo se les dé hecho, sin que ellos se molesten para nada. También a mí me ha dado lugar la crónica para exponer esta queja.

Y nada más: Sino aconsejarle que, antes de acusar y juzgar a nadie, se informe mejor.

Santesteban, 8 de junio de 1968.

Firmado: Francisco Eraso Alduncin

«PRINCIPE DE VIANA» deitzen den agerkerian geigarrian, 27'garren zenbakian, azkeneko Mayatzari dagokiona, irakurri det idazki bat Doneztebeko, «G. TA U. YON'ek» izenpetua, nun bateratu gabe baña askoratu ta iñor kendu gabe, ixuritzen dira utsegiñ ta salaketak «Maldarrek'ko» Batzarrek edo Aiuntamentu' en kontra, oientzat esaten dula:

«Ez ditut erri ta Aiuntamentu oien izenak emen agertu nai, ez merezi ez dutelako, baizik, egunen batez euren gain eroriko baita justizizko ordaña. Ez baitu sekulan balio «bildots-itxuran» azaltzea, «ozka» otsoarena gelditzen bada. Itz batean: EUSKERA, GORROTATUA DAGO».

Nola ni Doneztebeko Batzarreko erri-gizon edo concejala naiz, erbilletik jotzen dirate salaketak, ta, naiz idurikortasuna bada ere, uste det berezik direzela gure aiuntamentuantzat, eta gure aldepena ateratzen naiz.

Lendabizi, gozogabeko idazkiorrek baño argi-bide obek, noski, ditutelako, esan dezakiot, gure jaiotzeko izkuntzangatik, saiatu naizela egiten, errenkurak ta salaketetan zeetasun-gabeak erakutsi baño pixka bat geiago —zergatik ez da egia euskerari gorroto daukala iñork, lur ontakoa dena— eta orregatik ateratze naiz, ta nerekin Aiuntamentuko bestek, berri-emaille orren bidera, gezurtatzeko berak baieztutzen duna.

Ez Gortari Jauna. Ez gera euskal-izuk; baizik napar onak bezala oso euskal-zaleak ta zarronzaleak gure oitura onan maitatzaleak, oietaz beti jarri degunak eta jartzen jarraitzen degunak gure are pikorra.

Zorigaitzez, neri dagokidenez, ia urteak geiegi ta denbora gutxi daukat nai duten guziatarako, oietarako ta oien antzako bearretako, eginbide okin gabe, eta ez alderatu edo baztari dutelako eginbide bakar bat, baizik egiñ-egiñean, iduri du gauz guzik, eginbearrezkoak, pixka batzuen dako bakarrik dirala.

Badira gaztek ta zartxegoak geitasun osoakin, denbora dutenak errenkurak ateratzeko ta utsegiñak besten gain botatzeko, ezer egiten ez dala ta berak itxoñez, bestek dana egin da emango diotela ustez, ezertxongatik nekarazi gabe. Neri ere, idazki orrek eman dit nere errenkura agertzeko aldia.

Eta ezer geigo. Baizik zentzatu iñor salakatu ta erabaki baño len argi-bide obeak artuz.

Doneztebe, Garagar'illan 8'garrena, 1968'garren urtean.

Izenpetua: Eraso Alduncin'tar Frascu

GASNATEGI BERRIA ELIZONDON

Aspaldi huntan Naparroako Diputazioa Baztango Balleko Etxearekin batean bazabiltzan emen Baztanen gasna fabrika bat egiteko naikeriarekin eta orai erran dezakegu asmo oiek egi biurtu direla. Yadanik baditu bost ilabete edo geiago gasnategi hori lanean ari dela. Eguneroko eguneroko kamioneta batekin erriz erri badabilta ardi esnea biltzen. Denek ez dute saltzen, artzain aunitz baitira bide zabalera ateratzeko modurik ezutenak batez ere mendian eta urrun bizi direnak; bainan alare eguneroko roo litrotik goiti biltzen dituzte eta izan dira egunak 2.400 litrotaraño bildu dituztenak. Lendabizien asi ziren litroa 15'na pezeta ordaintzen bañan orai amairu bertzerik ez tute

pagatzen, ardi esneak olako goraberak izaten baititu.

Gasnategia «Queserías Hispano-Francesas S. A.» delako batasunaren eskuetan dago. Batasun hunek indar aundia du eta baditu Madrid en eta Palenzian gasna fabrika aundiak, Frantzi'ko eta Suiza'ko fabrika famatuenetakoekin batean lanean ari direnak. Elizondo'n egiten duten gasna huneri «Pok de Baztan» ezarri diote izena eta laster Espainia'ko denda guzietan salgai izanen dugu eta segur naiz gasna hunek izanen duela arrakesta, badugu uste eta ala nai genduke beintzat.

Beti ere Diputazioak eta Balleko Etxeak lan on bat egin dute eta gauzak bide onetik yarraikitzen balin badute yendea kontent egonen da, aurrerapen ta irabazbideak denen gogokoak dire.

LIBURU BERRIAK



Euskerak duen koropilorik audienea aditzarena du. Aditza berboari esaten diogu euskeraz. Orregatik azken urte auetan egiten ari diren lanak aditzaren ikasbidea arintzeko, or dago ta gure izkuntzaren koxka.

Atera berria da Aita Baztarrikaren liburu mamitsu bat, jokabide berria agertuz. Aditza euskal metoduz erakus nahi du; ez erdal metoduz. «Método Nor-Nori-Nork o el secreto del verbo vasco», izenpetzen du berak.

Ezin aztu Aita Isidor Araban dela; Estibalitz jatorrean buru egiten du. Ez da arritzeko, beraz, erdaraz azalpenak ematea. Bai «ADITZA» erdaraz erabiltzen du bere liburuan, aspaldi erdaldun den lurralde bat euskaldundu nahi balu bezala. «Ikastoletako aurrentzat ez baña gaurko gazteei begira egin dut lan au», esaten digu berak itzaurrean. «Eta oietan geienak euskaldun berri dira edo euskerazale besterik ez. Oiei laguntzeagatik egin dut erderaz, oien eskuetan bai dugu geroa».

Zorionak Aita Baztarrিকা. Asko ta asko dira urtearen buruan aditzaren ilundurak argitu nahian guregana jotzen dutenak; eta zuk diozun bezala geientsuak euskaldun berri gorago joateko kezkatuak. Uste dut uts audiña bete dezakela zure lanak.

Eta sortzetik euskera mintzo dugunok bai al dakigu euskal aditza bear bezala erabiltzen? Danontzat on laike ikusi bat ematea alako liburu bati. Pozez beterik ematen dugu berri au.

(ADITZA, P. Isidor Baztarrica. Eskatu Lazkao'ko Beneditarretara. 120 orri. 50 pta.)

Azkarate eta Atanori

(Mikel Arotzamenak jarriak)

— 1 —

Azkarate orain artian zu sei urtian txapelduna, nik bezelaxe bizi geranok ondo ikusi deguna; Bañan aurten geiago zan noski Atano zure laguna, gorputzez txikia izan arren badauka auditasuna.

— 2 —

Ai Azkarate orain artian etzera izan motela, pentsatu zuri begira erotzen egon izan geradela; Aurten berriz izandu degu Atanorentzat txapela galduagatik portatu ziñan gizon jatorra bezela.

— 3 —

Telebistatik ikusi nuan auzoko etxe batetikan zortzi utsa jarri zinaden Atanoren aurretikan Berreun ogeiri oyuka danak Azkarate aldetikan jipoi audiña artuta juanak badira Donostitikan.

— 4 —

Orain Atano zuri esate'izut nola baizeraden piña ta egun orretan saiatu ziñan irabazten alegiña; oyen onduan txit zu gorputzez izango zera txikiña baña bakarka jokatzeko pelotaririk audiña.

— 5 —

Zure osaba sillan onduan zuri konsejuk ematen len bera txapeldun izana da eztakit zenbatxu urten; gaztiek baña zarrak geyago askotan dute jakiten, eta berriz e saia zaitia aren esanak egiten

— 6 —

Irabaztunak pozakin eta galdutakuantzat kalte, nik sosikan ezte jokotuta penikan ezdaukat bate; goguangarrizko eguna zala askok esaten dirate baña onena zu zeradela danak aitortutzen dute.

— 7 —

Azkoitiako seme leylala Atanotarren kastatik, pelotarako griña eder ori ekarri zendun gaztetik; neonik eznun ikusi baña ala jakin det bestetik, sari ederra eraman zendun zure etxera Donostitik

— 8 —

Zorion audik emate'izkitzut oraintxe azkenekuan gaur bezelaxe jarraitu zazu aurrera ere yokuan; ikusten degu jarri zerala gizon audiñen lekuan ta txapel ori gorde ezazu zurekin urte askuan



«GAZTE GERA GAZTE»

¡GAZTEDIA! Ona emen gaurko munduen indarra.

¡GAZTEDIA! Ona emen biharko munduen oñarria.

Zer erran dezakegu gaurko g-ztedien gain?

Edo-ta, nun asiera eman, gaztedien gain idazten asi ezker?

Ezdauka asierik! Ez bukaerik An batzuek ala diote. Emen, bertze batzuek onela. Nora yokatu bear det?

Ona, Donosty-ko ZERUKO ARGIA deritzaion euskal errebistak zer dion:

«Epaillaren azkeneko egunakin batera bukatu zan Valladolid-en Españako XXVII-garren SOZIAL-ASTE. Aste mardula, gai interesgarri bateri iratsia: GAZTEDIA TA GAURKO MUNDUA.

Madrid-eko aldizkari edo errebista batek dionez SOZIAL-ASTE onen

bereiztasunak oek izan omen dira: bizitasuna ta adoretasuna, alde batetik; ta gaurko egunez gizaldi critean dagoen eten edo tartearen azerpen garbia, bestetik.

Bi lenengo bereiztasunak beti izan ditu noiz eta nun-naiko gaztediak. Gaztediaren muñeko almenak baitira oik. Baña gaur beste bereiztasuna argitu nai genuke: gaurko gizaldien artean ikusten degun etena, eten ikaragarria. Ogeita amar urtetik gorakoak ez dute zerikusirik aundirik gaurko gaztediarekin. Izugarrizko alde, tartea —obeto esateko: etena— dago gizon egiñ ta gazteen artean. Ta eten ori ezda gure artean bakarrik sortu. Berdin-berdin gertatzen da, bai Amerika-aldean, bai Afrika ta Txina-n ere. Ta ez bakarrik ekonomi, politika ta jaskiera gaietan. Baita erlijio ta sozial gaietan ere. Gaurko apez-gai gazteak ez dute lengo apaizen jokatzeko era. Ez gutxiok ere. Gaurko gazteak ez dute erlijioa gure giza-aldikoak ikusten zuten bezela ikusten. Izugarrizko aldia dago gai onetan eta bizimodu eta jokatzeko era daretan. Beste begiek ikusten dute, beste biotz bat darabilte gaurko

gazteak. Azkatasuna dala, sexo-gaia dala, emakumeen promozioa dala, demokrazi-ko gaia dala... Beste begiek ikusten dituzte, bai emen ta baita Rusia-n ere.

Ta zer esanik ez. Gazteena da mundua. Goi-Ameriketan eta Rusia-n bizi diranen artean, erdiak ogeita bost urtetik berakoak omen dira. Emen bertan, Españak, ia ogeita amabi milloi bizilagun iritxi dituan ordu onetan, amaika milloi gazte arkitzen ditugu, amabost urtetik ogeita amabost bitartekoak. Eta, auxe tamala. Españako Kortetan, amaika milloi gazte oietako bat ere eztago prokuradoreen artean...

Bestaldetik, industri, sal-eroste, ta bizibide berrietako jendea, gaztea da; eraginkorra da. Gai auetan cukera eman zaio gaztediari. Ekonomi aldetik, politika-sailletan izan ezuan aukera izan du gaztediak. Eta aukera ori eskatu egiten du.

Garbi asko azaldu da au, Valladolid-ko Sozial-Aste'an. Gaztediak aukera danak nai ditu. Ta gure ustez, esku-bide osoarekin. Gere burua il-tzea bezelatsu bai-litzake, gazte oiei eskatzen dutena ukatze».

ERKIZIA

ELIZONDO



Elizondo'ko Ikastolaren muttikoak urte guzian euskeraz mintzatzen ikasten ari direnak. Elizondo'ko euskal eskola au Diputazioak antolatua dago. Lauretan ogeien bat muttiko eta neskatto izan dira aurten yonan direnak, ya datorren kursurako bidean diran!!

«IMOTZKO MUTTIKO BATEK»

Se autoriza la copia para la investigación.

© GOBIERNO DE NAVARRA

GRAFICAS NAVARRAS, S. A. (GRAFINASA) - M. DE FALLA, 3 - PAMPLONA - D. L. NA 319-66



SORGIN IPUIA

Goatzean nago, otzak, zangoak bildu-bildua, oial otzak ukitzeko bel-durrak. Pentsamentua arin, lorez lore dabilkit.

Aldameneko goatzean aiton bat. Lorik ezin egin baitut, esaten diot:

—Aitona, konta zaidazu ele xaar bat.

—Bai Kontatuko diat sorgin ipui bat, baño egin tzak lo.

Eta ola kontatu zidan:

Buztingorri deritzaion erri batean gertatua duk.

Erri ortan bazuken mendi eta oyan artean baserri txuri bat, eta bertan bizi aita amak beren seme eta alabarekin, Manuel eta Mari-Joxepa.

Manuel arrantzale porrokatua, eta Mari Joxepa, sorgiña, naiz iñork ez jakin.

Gau batez Manuel arrantzara joan

zen ondoko ibai andira, arrantza on bat eginik, biaramuneko bazkari eder bat egiteko amorrai batzuek ekartzeko naikeriarekin, amaren urtebetetzea baita.

Arripe eta zulo guziak miratzen ditu, amorrai eta aingiraz bere zorrona betetzen ari, alako aize egorekin ezpaita gaitz. Kontent dago amaren urtebetetze ederki ospatzen aalko dutela amorrarez, olaskoz eta Mari Joxepak eginen duen postreaz.

Askiko dituela arrantzuak eta etxera abiatzeko dago, eta ara non ikusten duen Mendiluzeko gañean alako argitasun bat. Arriturik argi artaz garai artan, ikusi nai du zer den eta badoa ixil ixila mendi gora. Oartzitzen da urbildu denean sasi baten atzean. Zer du ikusten?

Su audi bat, eta suaren erdian AKER bat, geldia geldia, inguruan dabilzan jendeeri begira ausmarean. Suak ez dio miñik ematen. Eztu erretzen. Arrigarria!

Inguruan jende anitz, gizon, gazte, zaar eta gazte. Eta oraindik atsoz eta neskaz leer airean eldu alde guzietatik. Txalo ugari neska gazte bat lurrean pausatzen denean. Eta nor da ori? Manuelen arreba, Mari-Joxepa. Denok inguratzen dute, eta akerrak ere janbaka bere agurra egi-ten dio. Denen gain dela iduri du. Bi mutil gazteek korona bat ezartzen diote buruan, urrezkoa, eta manto dirdiratsu bat lepotik beiti.

Orduan txistulari sail bat asten da soñu jotzen eta an dauden guziak dantzari, zaar eta gazte, eder eta itsusi. Mari Joxepari ondolik pasatzean agur egiten diote, baita akerrari ere.